



TOLOSAKO  
UDALA

## **OHIKO OSOKO BILKURA**

**2019.05.14**

Tolosako Udaletxean, 2019ko maiatzaren 14an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzako bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 14 de mayo de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Kristina Pelaez Errazkin  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Batzar Unibertsal orokorraren funtzioetan, Tolosa Lantzen SA Sozietateko 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena.
2. Ondorengo aktak onartzea:  
2019ko otsailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

2019ko apirilaren 10eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.  
2019ko apirilaren 29ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

### **Orden del día**

1. En funciones de Junta General Universal, aprobación de las cuentas del ejercicio de 2018 de la sociedad Tolosa Lantzen, S.A.
2. Aprobación de las siguientes actas:  
Sesión ordinaria del 26 de febrero de 2019.

Sesión ordinaria del 10 de abril de 2019.

Sesión extraordinaria del 29 de abril de 2019.



3. Hasieraz onartzea gizarte zerbitzuen, osasunaren eta nazioarteko lankidetzaren alorreko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.
4. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea.
5. Onartzea Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko 12.1 Azpiesparruan —Alondegia— dagoen lurzoru zati baten erabilera eta luperketa Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea.
6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  
2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era (2019/372-2019/691).
7. Galderak eta eskaerak.
3. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora para la concesión de subvenciones para actividades en materia de salud y servicios sociales y cooperación internacional.
4. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial.
5. Aprobación de la cesión de uso y disfrute en favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa de una parcela situada en el Subámbito 12.1 -Alondegia- del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa
6. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:  
Del 1 de marzo al 30 de abril de 2019 (372/2019-691/2019).
7. Ruegos y preguntas.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Batzar Unibertsal orokorraren funtzioetan, Tolosa Lantzen SA Sozietateko 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena.**
1. **En funciones de Junta General Universal, aprobación de las cuentas del ejercicio de 2018 de la sociedad Tolosa Lantzen, S.A.**

Tolosa Lantzen, S.A., sozietatea Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu ondoren, 2019ko martxoaren 27an Administrazio Kontseiluak hartu zuen erabakiaren berri eman zaie.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez,

### ERABAKI DU

**Lehen.-** Onartzea aipatutako sozietateen 2018. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu eta txostenak.

**Bigarren.-** Onartzea sozietateen emaitzen aplikazioa, agirietan agertzen diren eran.

**Hirugarren.-** Sozietateko administrazio kontseiluaren lehendakaria ahalmentzea agiri horiek guztiak merkataritza erregistroan aurkezteko.



TOLOSAKO  
UDALA

**2. Ondorengo aktak onartzea:**  
**2019ko otsailaren 26ko Ohiko**  
**Osoko Bilkurakoa.**

**2019ko apirilaren 10eko Ohiko**  
**Osoko Bilkurakoa.**

**2019ko apirilaren 29ko Aparteko**  
**Osoko Bilkurakoa.**

**2. Aprobación de las siguientes actas:**  
**Sesión ordinaria del 26 de febrero de**  
**2019.**

**Sesión ordinaria del 10 de abril de**  
**2019.**

**Sesión extraordinaria del 29 de abril**  
**de 2019.**

Izenburuan aipatutako aktak aho batez onartu dira.

**3. Hasieraz onartzea gizarte**  
**zerbitzuen, osasunaren eta**  
**nazioarteko lankidetzaren alorreko**  
**dirulaguntzak arautzen dituen**  
**ordenantzaren aldaketa.**

**3. Aprobación inicial de la modificación**  
**de la ordenanza reguladora para la**  
**concesión de subvenciones para**  
**actividades en materia de salud y**  
**servicios sociales y cooperación**  
**internacional.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: "2017ko uztailan argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Tolosako udalaren ordenantza orrokora, horren ondorenean espezifikoa onartu zen eta baita arautegia ere. Ordutik izan diren diru-laguntzen deialdietan hainbat hutsune antzeman dira departamentuan ordenantzan horietan eta komeni zela balorazio balorazio irizpideak berrikustea. 2018ko irailaren 3an ordenantza aldatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion helburu bakarra izanik aldatzea ordenantza egokitzeko Tolosako errealitateari eta Tolosak dituen beharrei. Aldaketa esanguratsuen da bi ordenantzak bateratu egiten direla bakar batean. Lehen zeuden Gizarte Zerbitzuen alorrean jardutenak ordenantza bakar batean eta Lankidetzaren programak bestean, horien bateratzen dira ordenantza bakarrean eta proposatzen dira sei laguntza-ildo: lehena, proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak elkarteei; bigarrena, jarduerak egiteko diru-laguntzak elkarteei; hirugarrena, mantenurako diru-laguntzak; laugarrena, garapen proiektuak egiteko diru-laguntzak elkarteei. Bosgarrena, Nazioarteko lankidetzaren boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak eta seigarrena, Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak. Balorazio irizpideak berrikusi egin dira eta aldatu da puntuazio limitea eta gainera, balorazio irizpideak objetibatu egin dira. Aldaketa honekin sustatu nahi izan da Tolosan elkarte desberdinen aldetik antolatzen diren programak eta ekintzak, eragin positiboa duelako herriarengan. Baita ere dokumentazioa berrikusi da eta eskaera egiterakoan eta laguntza justifikatzerakoan prozedura arinago eta argiagoa proposatzen da. Elkarteei emango zaie gainera aukera dirulaguntza esleitzen denean diru kopurua aurrez jaso nahi duten %ko 100ean edo portzentaia bat amaieran, komeni zaiena.



TOLOSAKO  
UDALA

*Diktamena onartu zen maiatzaren 7an batzordean, orduan Kontuhartzailearen txostena idatzia ez zegoen, nahiz fiskalizazioa egina egon. Dagoeneko jada espedientean jasota dago, gaina uste dut egun bertan sartu zela. Beraz ez dago alde horretatik eragozpenik.”*

... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Ordenantza eztabaidatu zen eta gure aldetik ez zegoen mamiari dagokionean inongo eragozpenik, baina zorrotasun kontu batengatik eta nahiz eta ahoz esan zitzaigun ez zegoela Inongo eragozpenik eskatu genuen txostena eskutan izatea. Jada eskutan daukagu eta esan den bezala berehala izan genuen. Beraz ez daukagu inongo eragozpenik Hori esanda, aipatu ere txostena gaztelera hutsean dagoela eta eskatu saiakera txiki bat txostena euskaraz egon daitezen.”*

-----

## **GIZARTE POLITIKA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO MAIATZAREN 7KO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

2017ko uztailaren 7ko datarekin argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean “Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzaren ordenantza orokorra”, 2017ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onartutakoa.

Era berean, 2017ko abuztuaren 18ko datarekin argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean “Nazioarteko lankidetzeta programako diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza”, 2017ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onartutakoa.

Eta, data berean argitaratu zen, “Arautegia, diru-laguntzak emateko, osasun eta gizarte zerbitzuen alorreko jarduerak finantzatzeko Tolosan”, hau ere 2017ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onartutakoa.

Ordutik, diru-laguntza hauek emateko bi deialdi egin direnean, atzeman dira hainbat hutsune ordenantza horietan, eta egokia iritzi da balorazio irizpideak berrikustea eta bertan jasotzen den justifikatzeko prozedura eguneratzea.

Honela, 2018ko irailaren 3an, ordenantza aldatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion, eta beste administrazio publikoen araudiaren inguruko azterketa sakona egin ahal izan da. Eredu horietan oinarrituta, Tolosako errealitateari eta beharrei egokitutako proposamena landu da: *“Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako diru-laguntzen ordenantza espezifikoa”*

Landu den arautegi proposamen honek aldaketa esanguratsua jasotzen du. Alde batetik, diru-laguntzak emateko ordenantza bakarra proposatzen da, eta ordenantza horren baitan, laguntza-lerro konkrituak zehazten dira; eta bestetik, laguntza-lerro



horiek ordenatzearekin batera, horiek justifikatzeko prozesua ere erraztu eta argitu egiten da.

Beraz, ondokoa da *“Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako diru-laguntzen ordenantza espezifikoa”* n aurkituko duguna:

- Gizarte zerbitzuetako ordenantza bakarra sortzea proposatzen da, ditugun bi diru laguntza ordenantzak (gizarte zerbitzuen alorrean jarduten dutena eta Nazioarteko lankidetzaren programako diru-laguntzako) batean bilduta.
- Ordenantza berria sei laguntza-ildo deskribatzen dira:
  1. Tolosako udalerrian eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak elkarteei.
  2. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko jarduerak egiteko diru-laguntzak elkarteei.
  3. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarten mantenurako diru-laguntzak.
  4. Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak egiteko diru-laguntzak elkarteei.
  5. Nazioarteko lankidetzan boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak.
  6. Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko diru-laguntzak.

Honela, elkarte bakoitzak aukera izango du interesatzen zaion kontzepturako eskatzeko diru-laguntza, eskaera bera egiteko tramiteak eta ondoren laguntzak justifikatzekoak erraztuz edo sinplifikatuz.

- Balorazio irizpideak berrikusi dira, puntuazio minimoaren limitea aldatuz eta balorazio irizpideak objetibatuz. Modu honetan, laguntza-ildo bakoitzak bere balorazio irizpide propioak izango ditu, eta elkarteek eskura izango dute informazio hori. Modu honetan sustatu nahi dira Tolosan elkarte desberdinen eskutik antolatzen diren programak eta ekintzak, denek ere eragiten baitute herriaren izaeran eta herritarren onurarako izaten baitira .
- Dokumentazioa berrikusi da. Laguntza-ildo bakoitzari dagokion dokumentazioa berrikusi da, eskaera egiterakoan eta laguntza justifikatzerakoan prozedura argiagoa eta arinagoa izan dadin.
- Elkarteek emango zaie aukera esleitu zaien diru kopurua aurrez jaso nahi duten ala ez erabakitzeko. Honela, lortu nahi da Tolosako Udalak diru-laguntzen duen ekintza edo proiektu edo gastuak beteko direla bermatzea, boluntarioki lankidetzan diharduten elkarten eta herritarren eguneroko martxa erraztuz. Honela, elkarteek aukeratu ahal izango dute dagokien diru-laguntza zein modalitatean jaso nahi duten (hasieratik %100, %75-%25 edo %50-%50).



## AZTERKETA JURIDIKOA

**Aldez aurretikoa.-** 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkidea arautzen duenak, bere 133. artikuluan xedaturiko kontsulta-jardunbidea eskatzen du. Beraz, aldez kontsulta hau tramitatu beharko litzateke.

### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

**Oinarri juridikoa eta udalaren eskumena** Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua e) atalak udalek, besteak beste, behar sozialeko egoeren inguruko informazioa eta ebaluazioa jaso eta baztertze egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

*Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakunde berruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 13. atalean, zerbitzu sozialen kudeaketa, hain zuzen ere.*

### 2.- Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak.

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra  
Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua



### 3.- Ordenantzaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

### 4.- Organo eskuduna.

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

### IRIZPEN PROPOSAMENA:

**LEHENA.-** Gizarte zerbitzuen osasunaren alorrean lankidetzeta eta garapena arautzen duen ordenantzari behin behineko onarpena ematea.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

*Irizpen hau aztertua eta bozkatua izan da 2019ko maiatzaren 7an egindako Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboaren saioan.*

*Bozketak honako emaitza izan du:*

- Aldekoak:
  - Olatz Peon Ormazabal.
  - Nerea Letamendia Belloso.
  - Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga.

Era berean, Onintza Lasa Arteaga eta Kristina Pelaez Errazkin batzordekideek azaldu dute, ez daudela ados fiskalizazio eta onarpena ahozkoa izatearekin, eta ezinbestekoa dela beraien onarpena emateko txosten hori espedientean sartuta izatea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasieraz Gizarte zerbitzuen, osasunaren eta nazioarteko lankidetzaren alorreko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzen aldaketa.

**4. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea.**

**4. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *“Proposamena da langileei % 2,25eko ordainsarien igoera egitea: Hori oinarrিতта dago abenduan onartutako Errege Lege Dekretuan. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, beraz atzera eraginkortasuna aplikatzen zaio. Hori alde batetik, eta bestetik, , 2018 urteko Estatuko Barne Produktu Gordinak % 2,5eko portzentaian izanez gero , 2019ko uztailaren 1etik aurrera beste % 0,25eko igoera aplikatzen da. Dagoeneko ezarri da 2,6an jarri da portzentaia hori. Hori ordaindu ahal izateko beste baldintza da Estatuko Ministro Kontseiluak onartu beharko duela igoera honen aplikazioa. Oraindik erabakia hartu gabe dago, beraz , %0,25eko igoera ezingo da oraingoz aplikatu. Baina bai aplikatuko da ministro kontseilu horretan onartu bezain pronto. Azkenik, erabateko dedikazioz edo dedikazio partzialez aritzen diren diren korporazio kideak onartu genuen 2017ko uztailaren 27an langileek zuen igoera berdina izango zutela, beraz hori ere aplikatuko da.*

-----

**GIZA BALIABIDE ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDE  
INFORMATIBOAREN 2019KO MAIATZAREN 7KO IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

Joan den abenduaren 27an Estatuko Aldizkari Ofizialean 24/2.018 Errege Lege Dekretua argitaratu zen; bertan, beste hainbat gaien artean, 2019 urterako sektore





TOLOSAKO  
UDALA

publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak onartzen dira eta hauek aplikatzeko eman behar diren baldintzak arautzen ditu.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehena.-** Aipatu Errege Lege Dekretua aplikagarria da udaletxe guztiei, izan ere ordainsariei dagokionean oinarritzko araudi gisa kontsideratua bait dago eta gainera, legeak “sektore publiko” gisa honako entitateak barnebiltzen ditu bere 3 artikuluan:

“Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:

- a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.
- b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.
- c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes**.
- d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.
- e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.
- f) Las **sociedades mercantiles públicas**, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea **superior al 50 por ciento**. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.
- h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.
- i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.
- j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB).”

Hortaz, lege hau aplikagarri izango da bai Tolosako udalari, bai lurreamendi egoitzari (erakunde autonomo gisa) eta baita Tolargi eta Tolosa Lantzen udal sozietateei ere.

**Bigarrena.-** 2019 urtean sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako igoera izateko aukera izango dute, aipatutako 3 artikuluen baitan:

“Dos. En el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **2,25 por ciento** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

.../...

**Además** de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría,



TOLOSAKO  
UDALA

con efectos de **1 de julio** de 2019, otro 0,25 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30 %.

PIB igual a 2,2: 2,35 %.

PIB igual a 2,3: 2,40 %.

PIB igual a 2,4: 2,45 %.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

Además, se podrá autorizar un **incremento adicional del 0,25** por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de **superávit presupuestario** en el ejercicio 2018, este incremento adicional podrá alcanzar el **0,3 por ciento.**"

Artikulu honetatik honako hiru ondorio hauek atera daitezke:

- Lehena, 2019 urtean sektore publikoko langileek % 2,25eko ordainsarien igoera izango dutela 2019 urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2018ko abenduaren 31ean zuten ordainsariekiko.

- Bigarrena, 2018 urteko Estatuko Barne Produktu Gordinak % 2,5eko portzentaian badago edo hau baino altuagoa bada, 2019ko uztailaren 1etik aurrera beste % 0,25eko igoera aplikatu ahal izango da. Eta aldiz, %2,5 baino txikiagoa bada, hau proportzionalki jetsiko da goran azaltzen diren taulen arabera. Dena den, igoera hau aplikatu ahal izateko bi baldintza eman behar dira:

a) Estatuko Estatistika Institutoak argitaratzea 2018ko Barne Produktu Gordina eta hau % 2,5ekoa edo altuagoa izatea. Kasu honetan, baldintza hau jadanik bete da, izan ere joan den urteko Barne Produktu Gordina % 2,6an finkatu bait da.

b) Estatuko Ministro Kontseiluak onartu beharko du igoera honen aplikazioa. Baldintza hau betetzea faltako litzateke eta hortaz, %0,25eko igoera ezingo da oraingoz aplikatu.



- Hirugarrena, masa salarrialaren beste % 0,25 igoera baimendu ahal izango da hainbat ekintza zehatzak aurrera eraman ahal izateko, besteen artean, plan edo proiektu berrien efizientzia hobetzeko, hainbat destinu osagarrien maila berdintzeko, funtzio antzekoak dituzten hainbat berariazko osagarrien errebisioa burutzeko edota pentsio planei ekarpenak egiteko. Aldiz udalak aurrekontu superavita izan badu, % 0,3ko igoera baimentzeko aukera dago.

**Hirugarrena.**- Erabateko dedikazioz edota dedikazio partzialez aritu behar diren korporazio kideen ordainsarien erregulazioa ere aztertu behar da. Beraien ordainsariak ondoko arau hauetan oinarritzen dira:

-Batetik, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen 75 artikuluan eta Euskadiko Udal Instituzioen 32 eta 33 artikuluetan arautzen dira.

- Bestetik, 1/2015 Foru Dekretu/Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko kopuruak arautzen ditu. Bertan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrien karguentzat ezarritako ordainsariak ez dute 67.087 euro gordin urtean gainditu behar.

- Azkenik, udaleko 2019ko aurrekontuaren exekuzio arauaren 34 artikulua aipaturiko korporazio kideen ordainsariak arautzen ditu; honetaz gain, 2017ko uztailaren 27an egindako Osoko Bilkuran erabateko dedikazioa edo dedikazio partziala duten zinegotziei langileen soldataren igoera berbera aplikatzea eta une hartatik aurrera irizpide hau mantentzea erabaki zuen.

**Laugarrena.**- Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen gutxienez kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legarean 22.2 i) artikulua araberan, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena, bere 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren baitan, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa, udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko dira.

**Bosgarrena.**- Ordainsarien igoera honek udaleko aurrekontuan konsignazioa eta gastuaren onarpena beharko du, honakoa hain zuzen ere:



	2019 URTARRILA-EKAINA 2,25% IGOERA			2019 BIGARREN SEIHILAB. 2,50% IGOERA	
	Ordainsariak	Giz. Segur.		Ordainsariak	Giz. Segur.
Urtarrila	9.930,16	3.267,41	Uztaila	11.564,27	3.793,47
Otsaila	10.299,77	3.469,60	Abuztua	11.564,27	3.793,47
Martxoa	10.668,91	3.578,69	Iraila	11.564,27	3.793,47
Apirila	10.407,84	3.414,12	Urria	11.564,27	3.793,47
Maiatza	10.407,84	3.414,12	Azaroa	11.564,27	3.793,47
Ekaina paga	8.637,36		Abendua paga	9.597,07	
Ekaina	10.407,84	3.414,12	Abendua	11.564,27	3.793,47
<b>IGOERA 1. seihi</b>	<b>70.759,71</b>	<b>20.558,06</b>	<b>IGOERA 2. seihil</b>	<b>78.982,67</b>	<b>22.760,82</b>

  

<b>URTEKO OSOKO IGOERA</b>	<b>193.061,26</b>
----------------------------	-------------------

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak, Olatz Peon, Nerea Letamendia, Iñaki Irazabalbeitia eta Lore Agirrerren aldeko botuarekin, ahobatez, hauxe da eman duen

#### DIKTAMENA

**Lehenik.**- Tolosako udaleko langileen (funtzionario, laboral zein pertsonal ebentuala) zein bere erakunde autonomo eta udal sozietateen ordainsarien igoera onartzea, modu honetan:

- 2019ko urtarriletik 1etik 2019ko ekainaren 30a bitartean, % 2,25eko igoera.
- 2019 uztailaren 1etik aurrera, beste % 0,25 igotzea, hau da, oro har % 2,50 igoera aplikatzea ordainsarrietan, beti ere Estatuko Ministro Kontseiluak onartzen duenean bigarren igoera hau.

**Bigarrenik.**- Erabateko dedikazio edota dedikazio partzialez aritzen diren korporazio kideen ordainsarien igoera lehen puntuan aipatu den moduan ere aplikatzea.

**Hirugarrenik.**- Igoera aplikatu ahal izateko 193.061,26 eurotako gastua onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



Beraz, Udaltzarak aho batez **onartu du** Tolosako udaleko langileen (funtzionario, laboral zein pertsonal ebentuala) zein bere erakunde autonomo eta udal sozietateen ordainsarien igoera.

**5. Onartzea Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko 12.1 Azpiesparruan —Alondegia— dagoen lurzoru zati baten erabilera eta luperketa Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea.**

**5. Aprobación de la cesión de uso y disfrute en favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa de una parcela situada en el Subámbito 12.1 - Alondegia- del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: "Dakizuen bezala Alhondegiko eremuan daukagu Gerontologikoa, Eguneko Zentroa eta babestutako apartamentuen zerbitzua. Uzturre Asistentzia Guneak eskaria egiten dio Tolosako Udalari urtarrilaren 15ean lurzoruaren erabilerearen lagapena egiteko han mendekotasun egoeran dauden adineko pertsona gehiago hartatu ahal izateko. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldi berean, jakinarazten dio Tolosako Udalari Uzturre Asistentzia gunean harrera egoitza handiago egiteko Residencia San Cosme y San Damian, S.L.ri alde zurrerako baimena ematen diola zentroan handitze lanak egiteko. Aldaketa hauek eginda osotasunean geldituko lirake, gehienez, 120 plaza pertsona adinekoentzako, honela banatuta: banakako logelak, 116 eta bi lagunentzako logelak, 2. Hauetatik 16 plaza psikogeriatrakoak dira Zerbitzu hau eman ahal izateko eraikina zabaldu egin beharra dago, bertan eskaintzen dituzten zerbitzuak berrantolatu eta arreta eta kudeaketa egokiagoa egiteko. Zati berriari psikogeriatrako plazak berrantolatuko lirake. Gaur egunean Uzturre zentroko 5. solairuan daudenak. Zerbitzu honen beharra eta egokitasuna justifikatuta dago, Gizarte Zerbitzuko txostenak egoki eta komenigarria dela azpimarratzen du. Planteatzen den zerbitzuaren eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Beraz, proposatzen dena da Plan orokorreko Alhondegia azpiesparruan Gerontologiko eraikinaren ondoan eraiki gabeko lur azalaren zati bat, 160 m<sup>2</sup>-direnak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzea. Lagapena egongo zerbitzuarekin baldintzatuta, hau hau da, ezinbestekoa izango da lagatuko lurrazalaren gainean egingo den eraikina mendekotasuna duten adineko pertsonen arretarako izatea soilik. Gainera, lagapenaren epea bat etorriko da Gerontologikoko eraikinaren emakidarekin, hau da, 2061eko abenduarekin, Horrela bi eraikin hauek aldi berean berreskuratuko ditu Udalak.. Egoitzaren handitze-lanak eragina sor dezakete lur azpian dauden aparkaleku eta trastelekuetan. Arrazoi honengatik, aparkaleku eta trastelekuaren erabiltzaileen adostasuna jasotzea erabaki zen. Horren dokumentua eskatu zen eta aurkeztu da. Udal kontuhartzaitzak aldeko txostena egin du baina bai jarritu ditu lehen aipatutakoarekin batera beste bi baldintza gehiago Gipuzkoa Foru Aldundia. Eta udalaren artean egin behar den hitzarmen horretan. Bat da ekin Yda behar dira, lur gaineko atxikipena eta lagapena onartu aurretik. Lagapenaren epea amaitzen denean, Tolosako Udalak berreskuratuko duela lagatuko ondasuna, bere instalazio eta eskubide guztiekin, eta inolako karga, zor edota kalterik gabe. Eta bestalde, lagapena alde zurreratik amaitzen bada Tolosako Udalari egotzi ezin dakizkikeen arrazoiengatik, Udal honek ez duela



*inolako erantzukizunik izango, ez Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, ezta beste edozein hirugarrenen aurrean”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Guk oraindik berdina pentsatzen jarraitzen dugu eta berdinen inguruan galdezka jarraitzen dugu. Ez dugu ulertzen gai hau jorrazteko hartu diren presak, eta ez dugu ulertzen oraindik zer den, agian izan daiteke legealdiko azkenengo plenoa izango dela, baina oraindik ez daukagu oso argi. Gaia Hirigintza batzordetik pare bat aldiz pasa da. Lehenengoan pasa zen egun hartan diktaminatu egin nahi zen, hau da, gaia honek daukan garrantzia ikusita dela espazio publiko baten lagapena entitate pribatu batek kudeatzeko 2061era arte, Gu hemen gauden askok ordurako jubilazioa kudeatzen edo jubilatuta egongo ginateke edo beste leku batzuetan. Diot gaia nahiko garrantzia duela, eta hasieratik esan genuen gaiak jorrazteko astia behar zuela. Lehenengo batzorde horretan lortu genuen zu, Olatz, zure hitza ere, hau da, diktaminatu ahal izateko gaiak eta legeak eskatzen zituen txosten guztiak eskuartean izatea. Ez eskuartea izatea bakarrik baizik aztertuak izateko aukera izatea. Aipatu nahi nuke egun horretan, bezperan, jaso zela zuk esan duzun bezala, aparkalekuen jabeen inguruko adostasuna. Idazkarizatik hirigintza batzorde horretarako egun horretan bidali zitzaigun dokumentuak nabardurak zeuden beste kolore batean jarrita, non adostu gabeko puntuak agertzen ziren, hau da, dokumentu definitiboa ere ez zen. Hasiera, hasieratik konturatu ginen presa zegoela hau gaur edo legealdi amaitu aurretik onartzeko. Eta lehenengo batzordean, adostu genuen hartan, lortu genuen txosten guztiak izan artean Diputazioaren aldetik, eta ez solik Gizarte Zerbitzuetako txostenak baizik eta bai beste bat, patrimonioarena, izan ere hor jabetza batzuk daude ez zela ebatziko Hirigintzatik eta ebazpena eman ostean plenotik berme guzti horiekin aurkeztuko zela. Gaur da oraindik patrimonioko txostena, guk behintzat horren berri ez daukagula, Diputazioaren txosten inguru horri ez daukagula. Beraz, galdetzen dugu zer den gaia hau horrela landu eta garatzeko arrazoia eta bai edo bai onartu nahi izatea. Bestalde badago beste formei dagokionez, ez gaude ados formarekin. Ez zaigu iruditzen baleko forma direnik. Eta fondoaren inguruan argi daukagu, zerbitzu eta kudeaketa publikoaren inguruko zerbitzuak eskatuko ditugu eta Diputazioari hauek sustatzea eta indartzea eta betetzea aldarrikatuko dugu eta eskatuko diogu. Argi daukagu guk eta tolosarrok eta eskualdeko biztanleok merezi ditugun zerbitzuak kudeaketa publikoz egina direla eta jabego publikoa izan beharko luketela eta uste dugu indarrak lurreamendin jarri behar ditugula indarrak. Hau da, gai hau Diputazioarekin landu baino eta korrika eta presaka onartu baino, uste dugu lehentasun izan beharko lukeela lurreamendin berritze lanak egitea eta eskualde honek eta eskualde honetako biztanlean etorkizunean izango dituzten behar soziosanitarioak eta bizi baldintza beharrak ahalik eta hobenak izateko baldintzak sortzea eta eraikin horrek eskaintzen ditu baldintzak eta ikusten dugu indarrak inbertitu direla gestio pribatu izango duen zerbitzua indartzeko. Eta mahai gainean jarri nahiko nuke ideia bat, hemen duela gutxi Euskaltelen privatizazioaz hitz egiten aritu ginen eta orain beldur dago Euskaltel, enpresa publiko bat, Eusko Jaurlaritzak sortu zuena interes publiko batean orain beldur gara guztiok ea horren jabetza eta horren buruzagitza Euskal Herritik edo EAetik urrunduko den. Hori gertatzen da, azkenean, gestio pribatu indartzen denean. Hau da zerbitzu publikoak jabego pribatuen bidez indartzen diren neurrian horrelako arriskuak sortzen dira eta nork ez digu esaten hamar urte barru Madrilen pisu publikoak privatizatu ziren bezala eta fondo bultrei saldu zitzaizkien bezala horrelako gauza bat gertatzen ez denik. Gehiago kontutan edukita gure Eskualdean daukagun esperientzia eta*



sektore sanitarioan dagoen merkatu nitxoarekin batzuentzat nun dirua ikusten duen eta ez pertsonen ongizatea. Beraz, guk berriro diogu formetan ez zaigula formetan egokia iruditu prozedimentua, patrimonioaren txostena oraindik ez dago, hau da, Diputazioaren aldetik falta da oraindik informazioa eta bestetik fondoan ere ez gaude ados non jarri duen indarra udalak, hau da, gestio pribatu duen zentro baten inguruan lurreamendi hor daukagunean eta lurreamendiren alde eta lurreamenditik borrokatu behar dugunean edo ondoan egon behar dugunean. Beraz, argi dago gure bozka aukakoa izango dela.”

... Alkatea: “Aipatu dituzu fondo eta forma. Fondoari dagokionez zerbitzu publikoa babesten duzuela esan duzu. Guk ere babesten dugu, nola ez, zerbitzu publikoa. Eta ez da berria publikoa eta pribatuen osagarritasuna ere egoki ikusten dugula esatea. Modu guztietara hemen lehenengo dago egoera bat, daude itxaron zerrenda batzuk eta dago aukera adinduentzat plaza gehiago kontzertatzeko aukera bat. Bai lurreamendin bai Uzturre egoitzan zerbitzu oso ona ematen da, baina egia da kokapenarengatik soilik eta erabiltzailearen ikuspuntutik eta zerbitzu on bat ematearen ikuspuntutik Uzturre egoitzak dauzkan baldintzak eramaten duela itxaron zerrenda askoz ere handiago izatea Uzturren lurreamendin baino. Datu bat emateko, dagoen itxaron zerrendatik %85ak eskatu du Uzturren izatea. Beraz, guk aurretik jartzen dugu erabiltzailea herritarra eta zerbitzua eta publiko pribatuaren osagarritasunak ez digu aparteko kezka ematen, beti ere zerbitzu hobea bat emateko baldin bada. Izan ere, eredu horren harira daukagun gau egunean Uzturre zentroaren inguruan dauzkan zerbitzu guztiak beste herrietan eredu bezala jartzen direnak. Beraz, alde horretatik ez dugu inongo eragozpenik. Eta formari dagokionez, nik uste dut zerbitzu on bat denean eta aukera eman denean erronka hartu egin behar zaiola. Eta nik berriz ez dudana ulertzen zuek dena gelditzeko intenzionalitate hori. Espedientea osatuta dago, ez dago inolako eragozpenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko txostena jasotzen zen eta nik ez dakit hari horretan argibide gehiago emateko Begoñari emango nioke hitza. berak esan dezan espedientea osatuta dagoen eta Udalarekin aldetik inolako eragozpenik ba ote dagoen.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Ez dut esaten espedientea osaturik gabe dagoenik, txostena falta denik. Zuk Hirigintza batzorde horretan txosten guztiak egon artean ez genuela ebatziko esan zenuen. Noski forma aldatzen da, orain guk eskaintzen diogu Diputazioari, lehen hasiera batean formulazioa ez zen hori. Beraz espedientea erregularra da, ongi tramitatu da, falta dena da patrimonioaren txostena, jarraitzen duen faltatzen. Hala ere, formetan, fondoak kezkatzen dit benetan orain bertan esan duzuenarekin. Hau da Uzturren kokapena eta itxaron zerrenda handiagoak direlako, beldur eman dit lurreamendingatik azaldu duzuna, edo Uzturren alde egin duzun mezu horrek lurreamendiren etorkizuna nun eta non uzten duen, Beldur ematen dit lurreamendik Tolosako udalak orain arte kudeatu eta jabe izanda. Baina beldur ematen dit esan duzulako nola bertan eta kokapen hobea duen eta gu publiko pribatuen alde gauden. Ez dakit beldurra ematen dit esan duzun horrek, horrekin gelditzen zait. Begoñak esango du gero espedientearena. Formetan ikusi dugu hitza ez duzuela bete eta falta direla hor, nahiz eta prozedura juridiko legala bermatuko zenuten formulazioa aldatu delako, hau da, udalak egiten duelako orain eskaintza, Baina zur eta lur utzi nauzu esan duzun horrekin, non eta nola gelditzen den lurreamendiren egoera eta lurreamendiko daukazuen atxikipena esan duzun horrekin.”



TOLOSAKO  
UDALA

... Alkatea: *"lurreamendik nola gelditzen datu objektiboagok ez badituzu ematen, komentario hori oso arina. Esan dut, esan dut, bi egoitzetan daude itxaron zerrendak, bieran ematen dira zerbitzu onak eta kalitatezkoak. Beharra badago itxaron zerrendak handia daudelako. Beraz, ez dago inolako arriskurik lurreamendiarekiko, baizik eta alderantziz arindu egingo du dagoen oztopo bat. Hori besterik ez. Ez badituzu espedientearen azalpenik behar eta esaten baduzu osatuta dagoela. Ez baldin badago legezko eragozpenik eta fondoan ez baldin badago adostasunik, zuzenean bozketara pasako gara.*

-----

## **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURETAKO BATZORDEARI AURKEZTU ZAION IRIZPENA**

**GAIA: LURZORUAREN ERABILERAREN ETA LUPERKETAREN LAGAPENA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI, MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONEI EGOITZA- HARRERAKO ZERBITZU ZABALAGOA ESKAINI AHAL IZATEKO**

### **AURREKARIAK**

#### **1.- Eremuari buruzko datuak:**

**HELBIDEA:** San Joan kalea, 2 eta 4

**KLASIFIKAZIOA:** Hiri-lurzorua.

**ESPARRUA:** 12 San Frantzisko.

**AZPIESPARRUA:** 12.1. Alondegia azpiesparrua.

**ESKATZAILEA:** Uzturre asistentzia-gunea

**SARRERA DATA:** 2019/01/14

**2.-Emakida kontratua:** Lizitazio publikoa garatu ondoren, 2007ko apirilaren 4an, Tolosako Udalak eta "UTE Alhondiga" kontratu bat izenpetu zuten, ondoko xedearekin: Tolosako Alondegia eremuan lur azpiko aparkalekuak eta lurgaineko zentro gerontologikoa, eguneko zentroa eta babestutako apartamentuak eraikitzeko eta ustiatzeko obra-emakida. Aipaturiko AEB hori ondoko enpresa hauek osatu zuten: Arkaitza, S.A., Residencia San Cosme y San Damián, S.L., eta Arramele Siglo XXI, S.L.





TOLOSAKO  
UDALA

Emakida administratiboaren xedea ondoan deskribatzen den finkan garatu da:

*“Finca destinada a albergar los apartamentos, el centro gerontológico, el Centro de Día y los Apartamentos Tutelados para personas mayores dependientes y que se encuentra rodeada en su totalidad, salvo en su parte más próxima al Palacio de Justicia, por la finca matriz de la cual tiene su origen, radicante en Tolosa. Linda: Norte: con la finca matriz en su lado más próximo a la calle Soldadu y la Iglesia de San Francisco; Sur, con la calle San Juan y el palacio de justicia; Este, con la finca matriz, en su lado más próximo al frontón Beotibar y el Archivo Provincial, y Oeste, con la finca matriz, en el cual se construirá el nuevo vial paralelo a la línea férrea Madrid-Irún de ADIF. Tiene una superficie de seis mil ciento setenta y siete metros y quince decímetros cuadrados (6.177,15 m2)”.*

Erregistroko datuak: Liburukia: 2199; Liburua: 345; Orria: 165; Finka: 18316.

Lizitazioa abian jarri zenean indarrean zegoen legeria aztertu ondoren (2/2000 Legea, Administrazio Publikoen Kontratuak arautzen zituen), honako hau azpimarratu beharra dago:

- Lege horren 263. artikuluan xedatutakoaren arabera, obra publikoen emakidaren gehieneko epea 40 urtekoa zela, eta kontratu honen iraupena 50 urtekoa dela.
- Lege horren 53. artikulua xedatzen zuenez, kontratuaren indarraldia eskumeneko organoaren esleipenarekin hasten zela. Emakida honen kasuan, kontratua 2007ko martxoaren 23an esleitu zen, baina emakidak askoz beranduago hasi ziren, eta zenbaketik at utzi ziren eraikitze-lanak eta jarduera baimenak eskatzeko jardunbideak.
- 2062/2008 Dekretuaren bidez, Tolosako Udaleko alkateak onartu zuen UTE ALHONDIGA osatzen zuten enpresen eskaera, eta ebatzi zuen ARRAMELE SIGLO XXI SL enpresa hirugarren adinekoentzako zerbitzuen prestaziotik deslotzea. Erabaki horrekin kontratuaren xedea aldatu egin zen, hirugarren adinekoentzako zerbitzuak obrako emakidatik banandu zirelako. Era horretan, obrako emakida zerbitzu emakida bihurtu zuen ebazpen horrek, kontratuaren xede nagusienetarikoa aldatuz.

**3.- Eskaera:** Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuburuak egindako txostenean jasotzen denaren arabera, 2019ko urtarrilaren 15ean Uzturre Asistentzia Guneak eskaria egin dio Tolosako Udalari, hain zuzen ere, lurzoruaren erabileraren lagapena eskatu du, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen ematen dien egoitza-harrerako plaza gehiago eskaini ahal izateko.

Horren harira, 2018ko maiatzaren 3ko irteera-datarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosako Udalari bidalitako jakinarazpenean (2018ko maiatzaren 3ko sarrera-datarekin) ondoko hau xedatu zuela adierazi zuen:



TOLOSAKO  
UDALA

“ Lehenengoa.- Residencia San Cosme y San Damian, S.L. entitateari aldez aurreko baimena ematea Tolosako Residencia Complejo Asistencial Uzturre zentroan handitze lanak egiteko. Ezartzen dira gehienez 120 plaza pertsona adinekoentzako, honela banatuta:

-banakako logelak: 116

-bi lagunentzako logelak: 2

Bigarrena.- Baimendutako 9 plaza guztietatik 16 unitate psikogeriatriko batean daude, eta unitate hori bosgarren solairuan kokatuta dago.”

Xede hau eman ahal izateko, eraikina zabaldu beharra dago, bertan eskaintzen dituzten zerbitzuak berrantolatu eta arreta eta kudeaketa egokiago egiteko. Horrela, zati berrian psikogeriatrikoko plazak berrantolatuta, egoitza-harrerako plaza guztiak elkarrekin sortuko lituzkete.

Eraikitako gerontologia zentroaren eta apartamentu babestuen ondoan eraiki gabeko lurgaina dago (lur azpia aparkalekuek okupatzen dute), ondoko deskripzioarekin:

## **2.6.2. GAUR EGUN ERAIKI GABEKO LURRAREN AZALERA**

18.316 N finkaren Jabetza Erregistroko oharrean, 097. orrialdean, eraiki gabeko lurraren azalera guztion elementu gisa sailkatu da, eta horrela arautzen da:

*“El uso y disfrute de las zonas no ocupadas por la edificación en altura, de aproximadamente cuatro mil doscientos sesenta y nueve metros ochenta decímetros cuadrados (4.269,80 m<sup>2</sup>) será de uso público del Ayuntamiento de Tolosa...”*

*Linda: Norte: con la finca matriz en su lado más próximo a la calle Soldadu y la Iglesia de San Francisco; Sur, con la calle San Juan y el palacio de justicia; Este, con la finca matriz, en su lado más próximo al frontón Beotibar y el Archivo Provincial, y Oeste, con la finca matriz, en el cual se construirá el nuevo vial paralelo a la línea férrea Madrid-Irún de ADIF.*

Jabetza Erregistroko dokumentazioan agertzen den informazioaren arabera, elementu komun honek ez du kargarik.

**4.- Zerbitzuaren beharra eta egokitasuna:** Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak ezarri nahi den zerbitzuaren aldeko txostena egin du, haren beharra eta egokitasuna azpimarratuz: *“Beraz, adinekoen egoitza-harrerako beharrak asetzeko beharrezko baliabideak sortzeko aukera erraztea HERRITARREN INTERESEKOA dela eta, beraz, EGOKIA eta KOMENIGARRIA dela ondorioztatzen da. Ondorioz, honen bidez proposatzen da horretarako*



*beharrezkoa den lurzoruaren erabilera bideratzea, beti ere juridikoki, urbanistikoki eta ekonomikoki behar diren baldintzak betetzen badira. Era berean, honen bidez proposatzen da Uzturre Asistentzia Guneak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatuta duen plaza kopurua handitzea, Tolosako biztanleei egoitza-harreraren eskubide subjektibo hori Tolosan bertan bermatzeko aukera emate aldera.”*

**5.- Eskumena:** Residencia San Cosme y San Damián SLk eskaini nahi dituen zerbitzu berrien eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, bere 22-2-2.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Une honetan, goian aipatu den Legea garatzen duen 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, garatuta dago, eta bertan aurreikusitako prestazioak banatuta daude administrazio ezberdinen artean, bakoitzari dagokion eskumenaren arabera. Arrazoi horiek kontuan hartuta, Udalari ez dagokion zerbitzu bat Udalak kudeatzea ez litzateke bat etorriko, ez 12/2008 Legearekin, ezta 185/2015 Dekretuarekin ere.

**6.- Proposamena:** Egoera honen aurrean, Udal honetako Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak azaldutako beharra kontuan harturik, zerbitzu berria ahalbidetzeko baliabideak jartzea proposatzen da, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzea Tolosako Hiri Antolaketako Plan Orokorreko 12.1. Alondegia azpiesparruan kokaturik dagoen Gerontologikoko eraikinaren ondoan eraiki gabeko lur azalaren zati bat. Administrazio eskudun horrek erabakiko ditu zerbitzu berria eskaintzeko modua eta prozedura.

**7.- Zuzeneko lagapenaren ezintasuna:** Aurrekari horiek kontuan hartuta, Tolosako Udalak ezingo litzuke era zuzenean jarri eskaturiko zerbitzua abian jartzeko baliabideak, indarrean dagoen emakida administratiboa aldatuta. Horretarako, arrazoi ugari daude:

- Alde batetik, 2007an izenpeturiko kontratua behin baino gehiagotan aldatu da, eta prestazio honek indarrean dagoen kontratuan aldaketa berri bat suposatuko luke, garrantzitsua ikuspuntu kualitatibo eta kuantitatibotik .
- Eman nahi den zerbitzua ez da Udalaren eskumenekoa, Foru Aldundiarena baizik, eta une honetan, Gizarte Zerbitzuetako Legeak xedaturiko prestazioen banaketa gauzatu denean, Udalak ezingo luke bere gain hartu (zeharkako eran emakidaren bitartez) bere eskumenekoa ez den zerbitzua.
- Idazkari honen iritziz, aldiz, ez litzateke inolako oztoporik egongo Udalaren jabariko den lur gainaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzeko, Administrazio horrek zerbitzu berria gara dezan.
- Tolosako Udalak ezin du baldintzatu lagapen hau bertan ezarriko den zerbitzu berria bere emakidaduna den enpresari esleitzearekin. Izan ere, Udalak ezin du



TOLOSAKO  
UDALA

inolako erabakirik hartu foru eskumenekoa den zerbitzuaren kudeaketari buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiolako zerbitzu berri honen kudeaketari buruzko ebazpenak hartzea.

**8.- Lagapenaren xedea den lur gaina:** Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak egindako txostenean, ondoko deskripzioa egin du:

**2.6.3. ERAIKIN BERRIA EGITEKO BANANDU BEHAR DEN LURSAILAREN DESKRIBAPENA**

*“El Ayuntamiento de Tolosa, de la superficie libre de edificación que cuenta con, aproximadamente, cuatro mil doscientos sesenta y nueve con ochenta metros cuadrados (4.269,80 m<sup>2</sup>) de la finca registral nº 18316, SEGREGA la siguiente porción, para que se inscriba como finca independiente:*

*Parcela de 160 m<sup>2</sup>, ubicada dentro de la finca matriz, junto al edificio destinado al centro gerontológico y a la rampa de acceso al aparcamiento subterráneo Alhóndiga, linda al Norte con el actual edificio Residencia Uzturre, al Sur con rampa de entrada al aparcamiento subterráneo Alhóndiga, al oeste con acera del vial paralelo a las vías del ferrocarril de Adif (calle San Juan), y al este con prolongación de la Plaza Alhóndiga”.*

Finka hau banantzea onartu du Tolosako Alkatetzak 2019ko martxoaren 29an emandako 526/2019 Dekretuaren bitartez.

Espediente honen xedea ondoko hau da: Tolosako Gerontologia Zentroaren ondoan dagoen eraiki gabeko 160 m<sup>2</sup>-ko sestra gaineko azalera banandu ondoren, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitza-harrerako zerbitzuari atxikitzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea. Beraz, lagapena gauzatu ahal izateko, beharrezkoa den banantzea formalizatu behar da dagokion eskritura publikoaren bitartez. Tolosako Alkatetzak, 2019ko martxoaren 29an emandako 526 Dekretuan, banantzearen aldeko baimena eman du

**9.- Lagapenaren baldintza eta epea:** Lagapena baldintzatuko da zerbitzuarekin, alegia, ezinbestekoa izango da lagatako lurrazalaren gainean egingo den eraikina destinatzea mendekotasuna duten adineko pertsonen arretarako. Bestelako kasuan, Udalak berreskuratu ahal izango ditu, bai lur azala, baita gainean eraikitakoa ere.



TOLOSAKO  
UDALA

Lagapenaren epeari dagokionez, komenigarria ikusi da epe hau bat etortzea Gerontologikoko eraikinaren emakidaren amaierarekin, horrela, bi eraikin hauek aldi berean berreskuratuko ditu Tolosako Udalak. Beraz, lagapen honek indarraldia izango du gehienez 2061eko abenduaren 2ra arte.

**10.- Hirugarren adinekoentzako eraikin berriaren afekzioak hirugarrenentzat:** Egoitzaren handitze-lanek eragina sor dezakete lur azpian dauden aparkaleku eta trastelekuetan. Arrazoi honengatik, aparkaleku eta trastelekuen erabiltzaileen adostasuna jasotzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira, lur gaineko atxikipena eta lagapena onartu aurretik.

Aparkalekuen emakidaren titularra den ARRAMELE SIGLO XXI SL enpresak eragindako aparkalekuen erabiltze eskubidearen titularren adostasuna jasotzen duten dokumentuak aurkeztu dituzte, 2019ko apirilaren 12ko datarekin (Erregistro Sarrera zk.ak 3475-3476 ). Dokumentu hauek jaso dira eta espedientean daude, orokorrean 13 erabiltzaile eragiten dituztelarik.

**11.- Emakidadunen adostasuna:** Aurretik azaldu den moduan, ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiari laga behar zaion lur gaina (erabilera eta luperketa) indarrean dagoen emakidaren barruan elementu komun gisa dagoela, erabilera publikoarekin lotuta, ezinbestekoa da bi emakidadunek onartzea, bai lur gainaren banantzea, bai lagapena.

Espedientean agertzen da emakidadunek Udalari egindako eskaera, aipatu lur gaina Gipuzkoako Foru Aldundiari laga diezaion. Aurkezturiko idazkietan adierazten da, bigarren eskaera gisa, lagapenaren xedea izatea San Cosme y San Damian SL enpresak lur gaina okupatzea, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzuaren eraikina exekutatzeko. Azkeneko eskaera hori ezin du onartu Udal honek, inolako eskumenik ez duelako aipaturiko ondasunaren gain, zesioa gauzatzuz gero.

**12.- Udal kontuhartzailearen txostena:** Udal kontuhartzaileak, 2019ko apirilaren 8an egindako txostenean, 160 m<sup>2</sup>-ko partzelaren erabileraren eta luperketaren aldeko txostena aurkeztu du, ondorengo baldintzekin: espedientean Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaerarik agertzen ez denez, bere egunean izenpetuko den hitzarmenak —Udalaren eta Foru Aldundiaren artekoak— baldintza batzuk jaso behar ditu.



TOLOSAKO  
UDALA

**13.- Lagapenaren baldintzak:** Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenak ondoko baldintza hauek jaso beharko ditu:

- Lagako den ondasuna lotu egin behar da mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen egoitza-harrerako zerbitzuarekin, eta ezingo da erabili beste xedeetarako.
- Lagako den ondasuna beste xedeetara zuzentzea, nahiz eta gizarte zerbitzuen eremuaren barruan egon, edota agindutako jarduera gelditzea nahikoa arrazoi izango da Tolosako Udalak itzulketa-jardunbideari hasiera eman diezaion
- Lagapen epea amaitzen denean, Tolosako Udalak berreskuratuko du lagatako ondasuna, bere instalazio eta eskubide guztiekin, eta inolako karga, zor edota kalterik gabe.
- Halaber, lagapena alde zuzenetik amaitzen bada Tolosako Udalarik egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, Udal honek ez du inolako erantzukizunik izango, ez Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, ezta beste edozein hirugarrenen aurrean ere.

**14.- Gipuzkoako Foru aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko komunikazioa:** 2019ko apirilaren 15ean izenpeturiko idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Diputatuak, ondoko hau jakinarazi dio Tolosako udalari: *“Bilera eta kontsulta asko egin ondoren, Tolosako udalak eta Gizarte Politikako Departamentuak erabaki dute interesa partekatzea mendekotasuna duten adinekoen egoitza-plazen kopurua handitzeko, Alhondiga izeneko ABEE-aldi baterako enpresa elkarteak kudeatutako gerontologia zentroan. Helburu hori lortzeko, ordea, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari laga behar dio egungo gerontologia zentroari erantsitako partzela; hartara, Foru Aldundiak, lagapena onetsi ondoren, plaza gehikuntza kudea dezan, eta hartu behar diren erabakiak har ditzan, enpresa emakidadunak eraikin bat egiteko, oraingoaren osagarria, zeinari esker handitu egingo baita Tolosaldeko plazen kopurua”*. Jarraian, Foru Diputatuak adierazi du lagapenari buruzko espedientea Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak izapidetu behar duela, 8/1996 Foru Arauak, uztailaren 9koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondarea arautzen duenak xedatuta kontuan hartuta. Jakinarazpen honi amaiera emateko, Foru Diputatuak adierazi du Gizarte Politikako Departamentuak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari eskaera luzatu diola, Tolosako udalak eskaintutako lagapena izapide dezala.

Egoera hau kontuan hartuta, irizpen honetan proposatzen da Tolosako Plan Orokorren 12.1 Azpiesparruan gerontologikoaren ondoan eratuko den 160 m<sup>2</sup>.ko partzelako lur gaineko erabilaren eta luperketaren eskubidearen lagapena Gipuzkoako Foru Aldundiari **eskaintzea**, gainontzeko baldintzekin. Behin



TOLOSAKO  
UDALA

lagapenaren eskaintza onartuz gero, eta inolako baldintzarik aldatuko ez balitz, lagapena formalizatuko litzateke bi administrazioen artean. Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuko balu aldaketaren bat udal honek ebatzitzeko baldintzetan, Tolosako udalbatza plenoak erabaki berri bat hartu beharko luke, gaia aztertu ondoren.

## AZTERKETA JURIDIKOA

**1.- Eskumenak:** 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluko 13. atalean eskumena ematen die udalei gizarte zerbitzuak antolatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko.

Halaber, Eusko Legebiltzarrak 2008ko abenduaren 5ean onetsi zuen 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 22. artikuluan definitzen du zein diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta dauden zerbitzuak, euskal administrazio publiko eskudunek bermatu beharrekoak.

Artikulu horretan bi apartatu bereizten dira: batetik, lehenengo apartatuan daude lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak, 42.4 artikulua arabera udalen eskumenekoak direnak —telelaguntza zerbitzua izan ezik, hori Eusko Jaurlaritzari baitagokio—; bestetik, bigarren apartatuan daude bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak, 41.3 artikulua arabera foru aldundien eskumenekoak direnak —40.3 artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen dizkionak salbu—.

Legeak foru aldundien esku uzten dituen bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen artean daude adinduentzako egoitza-zentroak (22. artikuluko 2.4.1 eta 2.2.1 apartatuak hurrenez hurren).

Beraz, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Lege Sektorialak udalen eskumenetik at utzi du adinduen egoitza eta eguneko zentroekiko eskumena.

**2.- Eskumenaren delegaziorik eza:** Bestetik, administrazio bikoiztasunak saihesteko, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 27. artikulua ezartzen du udalek beren gain har ditzaketela eskuordetutako eskumenak, ezarritako baldintzak betetzen badira, eta beharrezko baliabideak hornitzen badira, alegia, langileak, materialak eta dirua. Eskuordetutako eskumenen artean daude:

- *Prestación de los servicios sociales, promoción de la igualdad de oportunidades y prevención de la violencia contra la mujer.*



TOLOSAKO  
UDALA

Delegazio hori dagokion hitzarmenaren bidez gauzatu behar da, 27. artikuluan xedaturikoa errespetatuz gero.

Kasu honetan, Tolosako Udalbatzari egiten zaion proposamenak helburua du Legeak ezarritako eskumen banaketa kontuan hartzea. Horrela, menpekotasuna duten pertsona adinduen arretarako zerbitzu osagarri hau kudeatuko luke eskumena duen administrazioak, alegia, Foru Aldundiak.

**3.- Lagapenaren araubidea:** 160 m<sup>2</sup>-ko lur gaineko lagapenaren araubidea izango da 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duenak, bere 8., 109., 110. eta 111. artikuluetan xedatutakoa eta 8/1996 Foru Arauak, 1996ko uztailaren 9koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondasunari buruzkoak, bere 36. artikuluan xedaturikoa.

Izan ere, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren artikuluek ondoko hau xedatzen dute:

### **Artículo 109**

*1. Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán enajenarse, gravarse ni permutarse sin autorización del órgano competente de la Comunidad Autónoma, cuando su valor exceda del 25 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto anual de la corporación. No obstante, se dará cuenta al órgano competente de la Comunidad Autónoma de toda enajenación de bienes inmuebles que se produzca.*

*2. Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán cederse gratuitamente sino a entidades o instituciones públicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del termino municipal, así como a las instituciones privadas de interés público sin ánimo de lucro. De estas cesiones también se dará cuenta a la autoridad competente de la Comunidad Autónoma.*

### **Artículo 110**

*1. En todo caso, la cesión gratuita de los bienes requerirá acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, previa instrucción del expediente con arreglo a estos requisitos:*

- a) justificación documental por la propia entidad o institución solicitante de su carácter público y memoria demostrativa de que los fines que persigue han de redundar de manera evidente y positiva en beneficio de los habitantes del termino municipal.*
- b) certificación del Registro de la propiedad acreditativa de que los bienes se hallan debidamente inscritos en concepto de patrimoniales de la entidad local.*





TOLOSAKO  
UDALA

- **c)** *certificación del Secretario de la corporación en la que conste que los bienes figuran en el inventario aprobado por la corporación con la antedicha calificación jurídica.*
- **d)** *informe del interventor de fondos en el que pruebe no haber deuda pendiente de liquidación con cargo al presupuesto municipal.*
- **e)** *dictamen suscrito por técnico que asevere que los bienes no se hallan comprendidos en ningún plan de ordenación, reforma o adaptación, no son necesarios para la entidad local ni es previsible que lo sean en los diez años inmediatos.*
- **f)** *información pública por plazo no inferior a quince días.*

*2. La cesión de solares al organismo competente de promoción de la vivienda para construir viviendas de protección oficial revestirá, normalmente, la forma de permuta de los terrenos por número equivalente de aquellos que hubieren de edificarse y, cuando esto no fuere posible, la cesión gratuita no precisará el cumplimiento del requisito d) del párrafo precedente.*

#### **Artículo 111**

*1. Si los bienes cedidos no fuesen destinados al uso dentro del plazo señalado en el acuerdo de cesión o dejasen de serlo posteriormente se considerará resuelta la cesión y revertirán aquellos a la Corporación Local, la cual tendrá derecho a percibir de la entidad beneficiaria, previa tasación pericial, el valor de los detrimentos experimentados por los bienes cedidos.*

*2. Si en el acuerdo de cesión no se estipula otra cosa, se entenderá que los fines para los cuales se hubieran otorgado deberán cumplirse en el plazo máximo de cinco años, debiendo mantenerse su destino durante los treinta años siguientes.*

*3. Los bienes cedidos revertirán, en su caso, al patrimonio de la entidad cedente con todas sus pertenencias y accesiones.*

#### **Artículo 112**

*1. Las enajenaciones de bienes patrimoniales se regirán en cuanto su preparación y adjudicación por la normativa reguladora de la contratación de las Corporaciones Locales.*

.....

Hala ere, 109. eta hurrengo artikuluetan **ondare-izaera** duten ondasunen besterentzea arautzen da, baina adinduen egoitza erabilerekin loturiko ondasuna **jabari publikokoa da, zerbitzu publiko batekin lotuta dagoelako**, Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 79.3



TOLOSAKO  
UDALA

artikuluari, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 74.2 artikuluan, eta goian aipaturiko Ondasunen Erregelamenduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, proposatzen den lagapenaren bitartez, ondasun horrek **demanio-mutazioa** izango du, subjektuaren arabera. Alegia, Udalaren herri jabariaren eremutik Gipuzkoako Foru Aldundiaren herri-jabariara pasatuko da, baina lotuta egongo da zerbitzu publikoarekin, hain zuzen, adinduen egoitza zerbitzuekin.

Hitzarmenean proposatzen den lagapena gauzatu ahal izateko, ondasun hau, aldi baterako bada ere, desafektatu beharko litzateke herri-jabarietik, eta hitzarturiko lagapenarekin batera, berriro afektatuko litzateke jabari publikora eta xede berberetara. Zentzurik ez duten izapide hauek ekiditearren, mutazio demaniala da eragiketa egokia kasu hauetan.

Tolosako Plan Orokorren 12.1 Azpiesparruan kokatuta dagoen Gerontologia Zentroko eraikinaren ondoan banandutako 160 m<sup>2</sup>-ko lur gaina mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako zerbitzuari atxikitzea beharrezkoa da, lagapenaren xedea bermatzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da emakidadunekin dagokion eskritura publikoa izenpetzea, gaur egun indarrean dagoen emakida-titulua aldatzen delako.

Ondasunen errebertsio edo berreskuratzeari dagokionez, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren 111. artikulua ondoko arazoak xedatzen ditu, proposatzen den hitzarmenean jasotzen direlarik:

- Ondasuna ez destinatzea hitzarturiko xedeetara.
- Lagapen-epea amaitzea: 30 urte, ondasunen afekzioa hasten denetik kontatzen hasita.

Hala ere, dokumentu honen aurrekarietan aipatu den moduan, lagapenaren gehieneko epea 2061ko abenduaren 2ra arte izango da.

**4.- Obren eragina jasan dezaketen hirugarrenen adostasuna:** Aurrekarietan aipatu den moduan, egoitza zerbitzua handitzeko eraikitze-jarduerak afekzioak sor ditzake aparkaleku plazetan eta trasteleketan. Arrazoi honengatik, lur zatiaren atxikipena eta lagapena onartu aurretik ezinbestekoa izango da haien titularren adostasuna jasotzen duen dokumentazioa espediente honi eranstea. 2019ko apirilaren 12an aurkeztu dira Tolosako udaleko Erregistro Nagusian garajeen erabiltzaileen adostasuna jasotzen duten dokumentuak.



TOLOSAKO  
UDALA

**5.- Espedientearen izapidetzea:** Espedientean, ondoko dokumentu hauek jaso dira:

- Aurkezturiko eskaera zerbitzua hazteko.
- Jabetza Erregistroko oharra, emakida jasotzen duena.
- Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko arduradunaren txostena.
- Txosten teknikoa, lur gaineko eremuko balorazioa jasotzen duena.
- Txosten juridikoa, lagapenaren aldekoa.
- Udal kontuhartzailearen txostena
- Izaera informatiboko dokumentua: lursaila banantzeko txosten teknikoa.
- 

**6.- Eskumena:** Ebazpena onartzeko eskumena duen organoa osoko bilkura da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2f) artikuluan eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere Bigarren Xedapen Gehigarriko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, irizpenaren onespenez Tolosako udal korporazioa osatzen duten kide gehienek aldeko botoa behar du —gehiengo absolutua—, aipatu 7/1985 Legearen 47.2.h) eta ñ) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Beraz, Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

#### **IRIZPENA:**

**LEHENA.-** Tolosako Plan Orokorraren 12.1 Azpiesparruan “UTE Alhondiga”rekin eratutako emakida aldatzea, eta Gerontologia Zentroko eraikinaren ondoan banandutako 160 m<sup>2</sup>-ko lur gaina mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako zerbitzuari atxikitzea.

**BIGARRENA.-** Aipatu lur gaineko erabileraren eta luperketaren eskubidearen lagapena Gipuzkoako Foru Aldundiari **eskaintzea**, gehienez 2061eko abenduaren 2ra arte. Lagapena baldintzatuko da ezarriko den zerbitzuarekin, alegia, ezinbestekoa izango da lagatako lur azalaren gainean egingo den eraikina destinatzea mendekotasuna duten adineko pertsonen arretarako. Bestelako kasuan, Udalak berreskuratu ahal izango ditu, bai lur azala, bai gainean eraikitakoa, dagozkion instalazioekin.

Halaber, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenak ondoko baldintza hauek jaso beharko ditu:



TOLOSAKO  
UDALA

- Lagako den ondasuna beste xedeetara zuzentzea, nahiz eta gizarte zerbitzuen eremuaren barruan egon, edota agindutako jarduera gelditzea nahikoa arrazoi izango dira Tolosako Udalak itzulketa-jardunbideari hasiera eman diezaion
- Lagapenaren epea amaitzen denean, Tolosako Udalak berreskuratuko du lagatako ondasuna, bere instalazio eta eskubide guztiekin, eta inolako karga, zor edota kalterik gabe.
- Halaber, lagapena aldeztetik amaitzen bada Tolosako Udalari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, Udal honek ez du inolako erantzukizunik izango, ez Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, ezta beste edozein hirugarrenen aurrean ere.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak lagapenaren eskaintza onartu eta inolako baldintzarik aldatuko ez balitz, lagapena formalizatuko litzateke bi administrazioen artean. Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuko balu aldaketaren bat udal honek ebatzitako baldintzetan, Tolosako udalbatza plenoak erabaki berri bat hartu beharko du, gaia aztertu ondoren.**

**HIRUGARRENA.-** Tolosako alkate-lehendakariari behar adinako ahalmena ematea, erabaki hauek gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko eta beharrezkoak diren izapideak gauza ditzan, Udal honen izenean eta ordezkartzan.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen oharra hartzea Udal Ondasunen Inbentarioan, lagapena formalizatzen denean.

**BOSGARRENA.-** Erabaki hauen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta San Cosme y San Damián SL eta Arramele Siglo XXI SA enpresei.

Tolosan, 2019ko apirilaren 30ean

Begoña Garmendia Vazquez  
Udal idazkaria

**EGINBIDEA:** Irizpen hau Hirigintza eta Azpiegituretako Batzorde Informatiboan aztertu eta bozkatu zen 2019ko maiatzaren 6anegindako bilkuran, eta bozketaren emaitza ondokoa izan zen:

- **Aldeko botoak:**, Olatz Peón, Jokin Azkue, Patxi Amantegi
- **Aurkako botoak:** Ibai Iriarte, Iñaki Irazabalbeitia.

Beraz, irizpena onartua izan da.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

**Aurkako botoak:** Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak gehiengo absolutuz **onartu du** Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko 12.1 Azpiesparruan —Alondegia— dagoen lurzoru zati baten erabilera eta luperketa Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea.

- |   |  |
|---|--|
| <b><u>6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</u></b><br><b><u>2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era (2019/372-2019/691).</u></b> | <b><u>6. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:</u></b><br><b><u>Del 1 de marzo al 30 de abril de 2019 (372/2019-691/2019).</u></b> |
|---|--|

Alkatetzak 2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era (2019/372-2019/691) eta 2 bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

## **7. Galderak eta eskaerak.**

## **7. Ruegos y preguntas.**

Alkateak azaldu du Tolosako hainbat auzo elkarteak idatzia aurkeztu dutela eta bertan daudenez hitza emango diela irakurri dezaten. Aipatu ere egin du eskatzen dutela udal alderdien iritzia jakitea beraien aurkezten duten idatzi horren gainean.

... Auzo elkarteek aurkeztutako idatziak honela dio:

“HIRIBUSA

*Iritzi publikoari eta Udal alderdi politikoei.*

*Tolosako hiri garraio publikoak -hiribusak- oso garrantzizko zerbitzua eskaintzen die herritarrei aspalditik.*

*Zerbitzua oinarrizkoa da tolosarren bizitza kalitateari eusteko eta hura hobetzeko.*



TOLOSAKO  
UDALA

Izan ere, hiribusa mota askotako herritarrek erabiltzen dute: ikasleek ikastetxeetarako joan-etorriak egiteko; lurreamendi egoitzarakoak; Asunción, klinikarakoak; polikiroldegiko erabiltzaileak; auzoetako jendea herriaren erdialdeko zerbitzuez eta establezimenduez baliatzeko (Amarotz, Berazubi, lurre, Usabal e.a.); gazteak, zaharrak, elbarriak...

Azken boladan, zerbitzuak gorabehera handiak izan ditu (langileen greba, zerbitzuaren adjudikazioa, autobus akasduak..) eta egoera hori herritarrek pairatu dute. Esan behar dugu, era berean, egoera horren aurrean Tolosako Udalaren jarrera eta ardura ez dela izan oso txukuna. Are gehiago, eskuak garbitzen saiatu da. Ez da ahaztu behar, zerbitzuaren ardura Udalarena dela.

Hortaz, eta udal hauteskundeak gainean ditugula aintzat hartuta, Tolosako udalera hautagaitza aurkezten duten alderdi guztiei honako hau eskatzen diegu:

- Tolosako hiri garraio publikoaren zerbitzua -hiribusa- programa eta eginbeharren barruan sartzea, oinarrizko zerbitzu modura.
- Tolosako hiri garraio publikoa Udalak zuzenean eta bere ardurape osoan kudeatzeko konpromiso irmoa erakustea.
- Kalitatezko eta beharrei behar bezala erantzuteko zerbitzua emateko konpromisoa hartzea.
- Aurreko guztia modu publikoan adieraztea herriari

Tolosan, 2019ko maiatzaren 8an

Auzo elkarteak/ordezkariek: Amarotz, Berazubi, Larramendi, Otsabi Izaskun auzoa, Ttontor San Esteban auzoa”

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): “Guk Alderdi Sozialistei Tolosako hiribusa oinarrizko zerbitzu bezala hartzen dugu eta beti bezala beharrei behar bezala erantzuteko zerbitzua bermatzeko lanean jarraitzen dugu eta jarraituko dugu. Mila esker.”

... Cristina Pelaez Errazkin (EHBildu): “Gure aldetik, atzetik hasiko naiz modu publikoan adieraztea eskatzen zenuen zein den gure iritzia. Modu publikoan gure iritzia behin eta berriz azaldu dugu. Duela urte bete jada hasi ginen esaten guk eta lehenagotik ere bai, Tolosako hiribusak kudeaketa publikoa behar zuela izan eta horrek bermatuko zuela zerbitzua kalitatezkoa izatea. Ikusi besterik ez dugulako egin esleipenak eta izan ziren arazoak eta zerbitzuan egon ziren mozketak eta sortu zituen arazoak jendeari. Programan sartuta daukagu, behin eta berriz kontatzen ari gara, gure asmoa kudeaketa publikoa eta udaletik kudeaketa izatea nahi dugula. Planteamendua Tolosako garraioa izatetik, agian planteatuko beharko litzake behin



*eta berriz ari gara entzuten arazo batzuk egon daitezkeela udalaren aldetik izateko. Planteamendua Tolosakoa egiten da baina beste planteamenduak ere bai egon daitezke.”*

*... Alkatea: Arratsalde on, lehenik eta behin, estimatzen dizuet gutxienerako Tolosako osoko bilkura honetara etortzea, esatea eta aukera ematea erantzuteko. Batzuetan prentsurrekoak egiten dira eta gero aukera hori ez da izaten. Hasieratik hasteko 2005. urtetik dauka zerbitzua, herri barruko garraio publikoa. Garai horretan udal honetan jarri zen mahai gainean kontzeptu berri bat, zela mugikortasuna. Lehen garraioaz hitz egiten genuen eta halako batean sartzen da mugikortasun terminoa. Termino horren inguruan egin zen horrelako plangintza bat egituratu eta antolatu. Plangintza horrek aurreikusi zuen eragin positiboa izan zezakeela hiribusa izatea Tolosako herrian, beste hainbat ekintzaz gain. Adibidez, eremu publikoan kotxeak gero eta espazioa handiago hartzen ari zen eta nolabait adierazten zen kotxeari espazioa kendu egin behar zitzaiola oinezkoari espazioa emateko eta berrekuratzeko oinezkoa espazio hori. Hartu ziren beste hainbat eta hainbat erabaki mugikortasun plan horretan : bidegorria, trafikoaren ordenazioa. Legealdi honetan egin berri dugu mugikortasun plan bat, oraintxe amaitzeaz dago eta horrek ere ekarriko dizkigu beste hainbat lan ildo mugikortasunari jarraitzeko. Hori da Tolosan urbanoa izateko arrazoi bakarra, garai hartan Jokin Bildarratz alkatea zen garai hartan egin zen lanketa potolo hori. Legeak ezartzen dituen zerbitzuaren artean egiten du biztanleagoaren arabera mailaketa bat. Ekarri dut legea zuek ere ikusi dezazuen. Legeak esaten du, udalerririk beren kasa edo elkaturik zerbitzu hauek bere beharko dituzte bere beharko dituen nola nahi ere. Lehengoa da udalerrietan guztietan, argiteria, hilerria., badago talde bat lehenengoa dena . Bigarrena 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan lehenengoaz gain, herriko parkea, liburutegi publikoa eta beste zerbitzu batzuk. Hirugarrena, 20.000 biztanle daude udalerrietan lehengoez gain, babes zibila, gizarte zerbitzuak eta beste batzuk. Eta azkena da 50.000 biztanle dauden udalerrietan lehengoez gaitz bidaiari taldeentzako herriko garraioa eta ingurumenaren babesa. Hori bai, argitu nahi nuke ez delako ohikoa 20.000ko biztanleko herri batean horrelako zerbitzu bat izatea, Tolosak baduena, esan dudana bezala garai hartan egindako lanketaren ondorenean. Politika jakin bat bultzatu zen eta horri esker daukagu herri garraio zerbitzua. Egia da aipatzen duzuen, lege ez beharrezkoa ez den hiribus ez prestatzeak herritarrentzako beharrezkoak diren beste zerbitzuetan gabezi handiak sortzea suposatuko luke. Gainera gabezia hau kolektibo kalte berei premiazko beharrak eta ahultasunak dituzten pertsonen are eta kalte gehiago eragingo lieke, ezinduak, pertsonak helduak, Asuntziorik klinika dihoazten biztanleak, lurreamenduko egoitzako egoiliarak, kanposantura dihoazten herritarrak eta erdigunetik kanpo gelditzen diren auzotarrak. Gure zerbitzuak lehenago Tolosaldearen Busen bitartez ematen zena eta gero Cuadrabiden bidez, eragozpen batzuk izan zituen egon zirelako langileagoaren aldarrikapenak eta langileak greba batera deitu zuten. Nik langilea esango dut izan ere urbanoa bat zen, gero aldaketarekin bat eta erdira pasa zen. Garai horretan udal honek eta udal gobernu honek etengabeko harremanak izan zituen bai sindikatuekin, bai enpresarekin, bai preokupazioa aurkeztu zenuten auzotarrekin, baita ere, bilera bat baino gehiago izan genuelako alkatetzan. Momentu hartan egon zen arriskua zerbitzurik gabe geratzeko, gutxienerako zerbitzu gabe ere gelditzeko. Gutxienerako zerbitzua handitzea ere soluzioa ere proposatu genuen eta orduan auzotar berak esan zuten langileak bazutela greba hori egiteko eskubidea eta ez zela komeni heltzea. Hori ere aipatzen dut mahai gainean jarri*



zelako. Gertatu zen momentu batean zerbitzurik gabe geratzeko arriskua izan zela. Orduan udal honek bi erabaki handi hartu zituen, bat inplikaturako aldeei enplazatu zitzaie denbora motz batean akordio batera iristea eta bigarrena, zerbitzua egin genuen udalekotu, gureganatu. Horretan, nik bidali nien alde inplikaturari eskutitz bat, irakurri dizuet eskutitz horretan zer esaten nien: Sarrera baten ondoren, lehenik eta behin adierazi nahi nuke erabateko errespetua izan diogula eta esan diogula etorkizunean ere enpresa eta langileen arteko negozioari. Negoziazeka ahalbideratzeko gure eskura dagoen guztian egin dugula eta egia itzaropena bagenuela akordioa lortzeko baldintzak eta borondatea aurreikusten genituelako. Uste dugu gatazka hau gainditzeko denbora gehiago behar dela eta hori da justu ez dagoena. Proposamen honekin hori nahi dugu eskaini, denbora egoera negoziazioa era egokian burutzeko, presarik gabe baina etenik gabe. Bestalde, udalaren ardura da gatazka honen ondorioak tolosarrek ez pairatzea garraio publikoaren zerbitzua guztiz galduz. Eta horren ondorioz, garraio zerbitzuren bat eskaintzeko obligazioa du Udal honek. Horiek horrela, Udalak aurreikusi du tolosarron hiriko garraio publikoa zuzenean udalak eskaintzea behin behingoan aurrean aipaturako gatazkek konponbidean jarri artean. Udalak ezin baitie uko egin tolosarrek duten irisgarritasun eta berdintasunaren eskubide unibertsalek. Hori da jaso zutena, gainera, momentu batean, negoziaketa batean gertatzen dena, badirudi posturak elkartzen direla eta badagoela akordiorako aukera eta halako batean aldentzen dira posturak. Udal gobernu honek egin zuen parte oso aktiboan negoziazio hartan, alkatetza, bi aldeak elkartu genituen behin baino gehiagoetan eta uste dut klabea izan zela gure papera akordio hori lortzeko. Gero akordioa lortu zen. Akordioa lortu zen. Modu guztietara, aurkezten duzuen kexa horren baitan ere, enpresak zerbitzuak emateko garaian zerbitzuan matxuratuta egon den aldi bakoitzean bere orde z jarri duen autobusak ez ditu gutxieneko baldintzak bete. Ez ditu bete. Orduan, Cuadra enpresari errekeritu zitzaion alkatetza bertan egindako bilera batean baldintza horiek betetzeko. Azkenaldi honetan izandako arazo guztiak gaindituta daudela uste dut. Jaso dudak kexa bakarria ordutegiari dagokien kexa txiki bat, baina bestela nik uste dut ondo gabiltzala zerbitzua emateko garaian. Eta lizitazioari berriari dagokionez, momentu honetan ari dira teknikoak aztertzen, badago gainera jasagarritasun energetiboaren aldetik lege berriak, ondo erreparatu behar direnak, eta lehen aipatu dizueten mugikortasun planaren baitan bi azterketa bereziak egiten ari dira. Bata da azterketa tekniko bat beharrak ondo definitzeko, estudio de la demanda deitzen zaion hori, eta, bigarrena da, azterketa ekonomiko bat. Autobusa udalarratzeko baldintza batzuk bete behar dira legez, baina kasu berezia delako gurea, hau da, 20.000 biztanle bakarrik dituelako Tolosak errazago izango litzateke zerbitzu handi bat izango balitz bideragarria izango litzateke bideragarriagoa behintzat munizipalizatzea udalak. Gurean oso zaila izango da eta hori ahoz behintzat adierazi digute nahiz eta oraindik idatziko txostenik ez izan baino izango dugu eta izango duzue hori ikusteko eta irakurtzeko aukera. Oso biztanleri txikia daukagulako urbano bat eta langile gutxi. Edozein moduetan zerbitzua prestatzen eta defendatzen jarraituko dugu eta hori nik uste dut demostratu dugula egin dugun bide honetan, izan diren zailtasun horiek guztien horien hartutako erabakietan. Are gehiago dagoeneko iragarrita dago Europako boletinean zerbitzu berri horren lizitazioa garaian garaiko tokatzen denean ateratzeko.”

... Cristina Pelaez Errazkin (EHBildu): “Bakarrik gehitzea, bueno kontatu duzu zer egin den urte guzti honetan zehar zerbitzu hori eman ahal izateko. Aipatu dituzu ere muga batzuk ere badaudela kudeaketa publikoa izateko. Baina aipatu dituzu zenbat





TOLOSAKO  
UDALA

*eduki dituzuen kontutan, mugikortasunez hitz egin duzu, langileen greba eskubideen buruz baina zerbitzu publikoa emango den edo aukera ikusten den ez duzu aipatu. Esan duzu zerbitzua ematen jarraituko dela baina publikoki edo udalak kudeaketako duen ez duzu aipatu. Bai txostenek esaten dutela zailtasuna handiak egongo direla udalak kudeatu ahal izateko, baina zuk esan duzun arabera zailtasunak zailtasun zerbitzua ematen jarraitu da, kudeaketa publikoa izan dadin, zailtasunak zailtasun, agian saiatu gaitezke. Eta egin den urte guzti honetan zerbitzu hori ematen jarraitzeko egin den lana eta esfortzu hori egin daiteke ere bai kudeaketa publikoa izan dadin. “*

*... Alkatea: Agian ez du ondo esplikatu, munizipalizatzeko zerbitzua baldintza batzuk bete behar dira eta bat da efizientziarena. Kostua ezin da orain ematen ari garena baina garestiagoa. Hitzez esan digun arabera,, idatzik ere emango digu, gehienbat txikia delako 20.000 biztanle duelako, horrek eragina handia omen du. Parke handia izango bagenu, Donostian bezala, errazago izango litzateke. Efizientearen legea ez bada betetzen ezin da munizipalizatu.”*

Jarraian, lehenik, auzo elkartekoetako kide batek hitza hartu du eta ondoren Tolosaldeko Osasun Arretaren inguruan galderak ere izan dira.

Bukatzeko, alkateak bilkurari amaiera eman aurretik honako hau esan du:

*“Amaiera legealdiko azkeneko plenoa denenez eta ondo bukatzeko puntu positibo batekin gogora ekarri nahi dut Errealeko garaipena Granadan. Nerea Eizagirrerri gogora ekarri nahi dut eta zorionak bidali. Azken honetan herriko taldeek lortu dituzten garaipena k asko izan dira. Zerrenda luzea da. Saiatu naiz orri batean jasotzen Tolosaldeko kirol taldeak lortu dituzten garaipenak eta hain luzea da ez naiz zela banan-bana denak esaten. Denei zorionak eta bereziki Nerea Eizagirrerri. Azkenengo osoko bilkura izango da funtzioetan gaudenean, hauteskunde pasatakoan, aktak onartzeko beste bat egingo dugu eta izango dugu aukera elkar agurtzeko. Ordura arte, mila esker”*

Besterik gabe, 20:40an, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA